

1. Irakur ezazu ipuina.

ÑIMIÑO



Nimiño esaten didate, txiki-txikia naizelako eta, leihotik beste aldera begiratzeko, beti aulkiren baten igo behar izaten dudalako.

Neba-arrebak, berriz, luze-luzeak ditut!

Haiek asko hazi dira eta sukaldeko goiko apalera heltzen dira eta han dagoen marmelada hartzen dute. Nik, ordea, ez. Laguntza eskatu behar izaten diet beti.

Batzuetan, korridorean korrika nabilenean, neba-arrebek estropezu egiten dute nirekin.


-Egunen batean zapaldu egingo zaitugu! -esaten didate.

Hazi egin nahi dut, azkar, haiek ni ez zapaltzeko.

Eta batez ere, marmelada hartu ahal izateko. Nire urteak zenbatzen ditut hatzamarrekin.

Esku osoa.

Hemendik aurrera den-dena jango dut: entsalada, zopa, haragia... Handi- handia egingo naiz horrela!



2.Ea ulertu duzun.

- Zergatik esaten diote ñimiño ipuineko neskatoari? _____

- Aukeratu hitz zuzena hurrengo esaldian:
“Ñimiñoren neba-arrebak _____ dira.”

- Zergatik hazi nahi du Ñimiñok?

Aukeratu egia ala gezurra:

- *Neba-arrebek ez zapaltzeko.*

- *Kalea aulkirik gabe ikusteko.*

- *Marmelada bakarrik hartzeko.*

- Zerekin zenbatzen ditu urteak Ñimiñok?

- Zenbat hatzamar ditugu esku bakoitzean?

- Zenbat urte ditu Ñimiñok?
